

Ebazpena: R004/2025

Espedientea: E093/2021

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral, presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Honakoa erabaki du gaurko egunez:

ERABAKIA

Arabako Foru Aldundiak (aurrerantzean, AFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka planteatu zuen, hain zuzen, zehazteko zeinek duen eskumena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, DGOSS entitateak 2014tik 2017ra bitarteko ekitaldietan ordaindutako prestazioei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren funtzionarioen edo langileen pentsioei eta hartzeko pasiboei dagozkien errentengatik. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da (93/2021 espediente-zenbakia).

AURREKARIAK

1.- 2018ko maiatzaren 25ean, AFAk diru-itzulketa eskatzeko lau idazki aurkeztu zizkion ZAEARI, eta adierazi zuen DGOSS entitateak ZAEAn sartu zituela, eta ez AFAn, 2014tik 2017ra bitarteko atxikipenei zegozkien zenbatekoak, eta atxikipen horiek Arabako Lurralde Historikoan bizilekua duten eta autonomia-erkidegoen

edo toki-entitateen eremuan eta organismo autonomo eta enpresa-entitate publikoetan zerbitzua eman zuten jasotzaileen ordainsariei egin zitzaizkien.

2.- 2018ko abuztuaren 20an, ZAEAk ohar bat igorri zion AFARI. Ohar horretan, ZAEAk DGOSk sartutako atxikipenen lotuneari buruz zuen irizpidea islatzeaz gain, adierazi zuen AFAk aurkeztutako eskaerak aztertzen ari zela, ZAEAk itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko.

3.- AFAk eta ZAEAk hainbat mezu elektroniko bidali zizkioten elkarri. Mezu horien artean, AFAk 2021eko otsailaren 17an eta apirilaren 12an bidalitakoak nabarmendu behar dira. Horietan artxibo bana erantsi zen, honako datu hauek zehaztuta: jasotzaileak, zerbitzua eman zuten organismoa eta ZAEAn sartutako atxikipenen zenbatekoa (AFAk horien transferentzia eskatu zuen).

4.- 2021eko irailaren 17an, ZAEAk lau akordio helarazi zizkion AFARI (erreklamaturako urte bakoitzeko bat), 2021eko abuztuaren 2koak denak, autolikidazioak zuzentzeko helburuarekin; akordio horien bidez, partzialki baietsi ziren diru-bidalketen eskaerak.

Alde batetik, 2014ko ekitaldiari zegokion ebazpen-akordioan, ZAEAk ezetsi egin zuen 2014ko ekitaldiko urtariletik apirilera bitarteko aldiei zegozkien atxikipenak transferitzeko eskaera (2014ko otsailaren 20tik maiatzaren 20ra bitartean sartu ziren ZAEAn), transferentzia hori eskatzeko eskubidea preskribatuta zegoela iritzita, diru-sarrera egin zenetik lau urte baino gehiago igaro zirelako eskaera-idazkia aurkeztu zen egunera arte.

Bestetik, 2014ko maiatzetik abendura bitarteko aldiei eta 2015etik 2017ra bitarteko ekitaldiei zegozkien akordioetan, ZAEAk adierazi zuen eskatutako transferentziak ez zirela bidezkoak, eta azaldu zuen ezetsi egin zirela «hartzaileei egindako atxikipenak, jasotzaileek zerbitzua eman zuten organismoa, Estatuko Administrazio Orokorreko edo haren entitate instituzionaletako parte den entitatea da, baina ez da ez organismo autonomoa, ez enpresa-entitate publikoa; beraz, Ekonomia Itunaren 7. artikulua Bi apartatua aplikatu beharko litzateke, eta, beraz, atxikipenak Estatuko Administrazioari legozkioke».

Honako entitate hauetan eman zuten zerbitzua: SECTSA SME eta Correoseko Langileen eta Telegrafoen Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Arabako Probintzia Zuzendaritza; MEA; ZAEA; IAGI; Justizia Ministerioa; eta Estatuko Administrazio Periferikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusia.

5.- 2021eko azaroaren 11n, AFAk, maiatzaren 23ko 12/2002 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena) xedatutakoarekin bat etorriz (aurrerantzean, Ekonomia Ituna), inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, onar zezan DGOSk 2014tik (lehen lauhilekoa barne) 2017ra bitarteko ekitaldietan egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena AFArene zela; izan ere, atxikipen horiek egin zitzaizkien zergadunen ohiko bizilekua Araba zen, eta beren prestazioen jatorrizko lanak Estatuko Administrazio Orokorren parte hertsiki ez diren entitateetan eginak ziren, lehenago erreklamaturako horietan (salbu eta Justizia Ministerioa eta Estatuko Administrazio Periferikoaren Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusia, bi erakunde horien gaineko kontsiderazioan ados zegoen- eta ZAEArekin).

AFAk honako arrazoi hauek eman zituen:

- Preskribatu gabe zegoen 2014ko urtarriletik apirilera bitarteko aldiei zegozkien atxikipenak eskatzeko eskubidea, Arabako Foru Aldundiaren tributu- eta aurrekontu-araudian ezarritako bost urteko epearen arabera.
- Eskumena AFari zegokionez, ZAEAk egindako atxikipenen zenbatekoak bidaltzeko obligazioa zuen; izan ere, atxikipen horiek egin zitzaizkien zergadunen ohiko bizilekua Araba zen, eta atxikipenak 2014 eta 2017 bitarteko ekitaldietan Estatuko Administrazio Orokorraren parte hertsiki ez diren entitateetan lan egitearen ondoriozko pentsioei eta hartzekoei dagozkien errenten gainean egin ziren.

6.- 2021eko abenduaren 13an, ZAEAk AFari jakinarazi zion ez zuela onartuko inibizio-errekerimendu hori, ez zegoelako ados AFAk emandako irizpideekin, eta lehen azaldutako arrazoiak errepikatu zituen.

7.- 2021eko abenduaren 22an, AFAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordean, zehazteko zeinek zuen ordainarazteko eskumena, DGOSS entitateak 2014tik 2017ra bitarteko ekitaldietan ordaindutako prestazioen kasuan, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren eta Autonomia Erkidegoan edo EAEko tokiko entitateetan zerbitzua eman zuten funtzionarioen edo langileen pentsioei eta hartzeko pasiboei dagozkien errenten gainean. Gatazka prozedura arruntari jarraituz izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko

eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoarekin bat, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Aplikatu beharreko arauak.

2.1.- Zergazkoak ez diren zuzenbide publikoko kredituen preskripzioa.

Arabako foru-eremuan, auzitan diren aldi jakin horiei dagokienez, preskripzioaren arloan aplikatu beharreko arau substantiboa 53/1992 Foru Araua zen (Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuen araubide ekonomikoari buruzkoa), 2023ko abenduaren 31ra arte egon zena indarrean. Honela zioen 21. artikulua:

«21. artikulua. – Preskripzioa.

1.- Arabako Foru Ogasunaren eskubideak preskribatu egingo dira, haietako bakoitzari berariaz, zuzenean edo ordezeko moduan aplikagarri zaizkion xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2.- Aurreko apartatuan aipatzen den xedapenik ez badago, bost urteren buruan preskribatuko dira Arabako Foru Ogasunak zenbait arlotan dituen eskubideak:

a) Izaera publikoko kredituak aitortzeko edo likidatzeko eskubidea.

b) Aitortutako edo likidatutako izaera publikoko kredituak kobratzeko eskubidea.

3.- Aurreko apartatuko a) letrak aipatzen duen kasuan, eskubidea egikaritu zitekeen egunetik hasiko da kontatzen bost urteko epea. Apartatu bereko

b) letran aipatzen den kasuan, jakinarazpena egiten den egunetik hasiko da kontatzen epea, edo, jakinarazpena nahitaezkoa ez bada, muga-egunetik.

(...)»

Estatuan, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, ALO), 25. artikuluan, honako hau xedatzen du obligazioei dagokienez:

«25. artikulua. Obligazioen preskripzioa.

1. Lege berezien arabera ezarritakoak izan ezin, gainerakoak lau urtean preskribatuko dira:

a) Justifikazio-agiriekin batera aurkeztu ez den obligazioa ere Ogasun Publikoak aitortzeko edo likidatzeko eskubidea. Obligazioari dagokion zerbitzua edo prestazioa amaitzen den egunean edo eskubidea gauzatu ahal izan zen egunean hasiko da kontatzen epea.

b) Obligazio aitortuen edo egindako likidazioen ordainketa eskatzeko eskubidea, baldin eta hartzekodun legitimoek edo haien eskubidedunek eskatzen ez badute. Epea kontatzen hasiko da obligazioaren aitortpenaren jakinarazpen-egunetik edo likidazioarenetik aurrera.

2. Lege berezien alde egindako salbuespen horrekin, preskripzioa Kode Zibilaren xedapenen arabera etengo da.

3. (...)»

2.2.- Atxikipenen eta konturako sarreraren ordainarazpena.

PFEZaren lan-etekinengatiko atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko eskumena zein administrazioek duen zehazteko, Ekonomia Itunaren 7. artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan (jatorrizko idazkeran). Honako hau zioen:

Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

(...)

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, "Montepio"-etatik eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

(...)

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei.

Urriaren 25eko 28/2007 Legeak, Ekonomia Ituna aldatzen duenak, hamargarren xedapen iragankor bat gehitu zuen, 2007ko urriaren 27tik 2017ko abenduaren 29ra indarrean egon zena. Honako hau zioen:

«Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legearen arabera erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publiko bat agentzia bihurtzen denean, haiei aplikatuko zaie 7. artikuluan erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publikoetarako aurreikusten den eskumen-araubidea».

Azkenik, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua azken paragrafoa aldatu zuen (2017ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean), eta bertan jasotako zerrenda handitu zen. Honela idatzita geratu zen:

«Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei, ez eta Estatuko merkataritza-sozietateetakoei, Estatuan adskribatutako partzuergoetakoei, Estatuko fundazioetakoei, transferitu gabeko unibertsitate publikoetakoei eta Euskadiko lurraldean dauden portuetako agintarizetakoei ere».

3.- Arabako Foru Aldundiaren jarrera.

3.1.- Zergazkoak ez diren zuzenbide publikoko kredituen preskripzio-epearen zenbaketa zehaztea.

AFaren ustez, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren preskripzio-epearen (21. artikuluan bost urteko epea adierazten du) eta ALOren (25. artikuluan lau urteko epea ezartzen du) arteko desadostasuna behar bezala ebatzi beharko da, baliatutako ekintzaren xede den baliabide publikoaren titularrari dagokion araua aplikatuz. Gatazka honetan erreklamaturako atxikipenen ordainarazpenaren titulartasuna AFari dagokionez, Aurrekontuei buruzko Foru Arauan ezarritako preskripzio-aldia aplikatuko da, hau da, bost urteko epea.

3.2.- Atxikipenak ordainarazteko eskumena.

AFAk adierazi du ez dagoela ados ZAEAk egindako interpretazioarekin, jasotzaileei egindako atxikipenei dagokienez; izan ere, ZAEAREN iritzian, jasotzaileen organismo ordaintzaile gisa ageri dena Estatuko Administrazio Orokorren edo haren entitate instituzionalen parte den entitate bat da, eta, beraz, ZAEAREN arabera, Ekonomia Itunaren 7. artikuluen Bi apartatua aplikatu beharko litzateke.

Bere irizpidea defendatzeko, Arabako Foru Aldundia Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko 617/2018 Epaian adierazitakoan oinarritzen da. Epai horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen 4/2017 Ebazpenaren aurka jarritako errekurtoa ebazten du, 10/2015 gatazkan (MUFACeri buruzkoa). Horren

arabera, Ekonomia Itunaren 7.Bi artikularen lehen paragrafoa (salbuespena) hertsiki aplikatu behar zaio Estatuko Administrazio Orokorrari, eta, beraz, sektore publiko instituzionala osatzen duten entitate enplegatzaileretako langileen (ohiko bizilekua Araban) ordainsari pasiboen atxikipenak, gatazka honetan gertatzen den bezala, AFAn sartu behar ziren, Ekonomia Itunaren 7.Bat.b) artikuluan ezarritako lotunea aplikatuz.

4.- ZAEAREN jarrera.

4.1.- Zergazkoak ez diren zuzenbide publikoko kredituen preskripzio-epearen zenbaketa zehaztea.

Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren preskripzio-epearen (21. artikuluan bost urteko epea adierazten du) eta Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren (25. artikuluan lau urteko epea ezartzen du) arteko desadostasuna ikusita, ZAEAK uste du baliatutako ekintzaren xede den baliabide publikoaren titulartasunaren arabera aplikatu beharko dela bata edo bestea. Baliabidea Arabakoa bada, Aurrekontuei buruzko Foru Araua aplikatuko da, eta Espainiakoa bada, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra. ZAEAREN ustez, baliabidearen titulartasuna bada eztabaidagaia, Aurrekontuen Lege Orokorra aplikatu behar da, Espainia osoan oro har eta osagarri gisa aplikatu behar den araua baita.

Gatazka honetan, erreklamatutako atxikipenak, ZAEAREN ustez, Espainiaren eskumenekoak izanik, eta AFAREN ustez, Arabarenak izanik, lau urteko preskripzioa aplikatu beharko litzateke.

4.2.- Atxikipenak ordainarazteko eskumena.

Bestalde, ZAEAREN arabera, auzitan diren atxikipenak egin zitzaizkien jasotzaileek zerbitzua eman zuten Estatuko Administrazio Orokorren edo Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitateetan, baina entitate horiek ez ziren ez organismo autonomo ez enpresa-entitate publiko.

Alde batetik, ZAEAK uste du AFAK alegatu duen Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko epaia ezin dela doktrina errepikatutzat jo, ez baitu jurisprudenziaz eratu, Kode Zibilaren 1.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Hori dela eta, ZAEAK uste du epai hori MUFACE entitateari bakarrik aplikatu beharko litzaiokeela eta ez litzatekeela egokia izango organismo autonomoak edo enpresa-entitate publikoak ez diren estatuko beste pertsona juridiko-publiko batzuetara zabaltzea.

Bestalde, ZAEAK adierazten du Ekonomia Itunean legegileak «Estatua» edo «Estatuko Administrazioa» hitzak erabiltzen dituenean, Estatuari edo Estatuko Administrazioari erreferentzia egiteko erabiltzen dituela, eta ez Estatuko Administrazio Orokorri. Horrela, Ekonomia Itunak xedatzen duena da Estatuko Administrazioari dagozkiola «Estatuko Administrazio Orokorreko» eta «Estatuko Administrazio Instituzionaleko» langileek jasotako ordainsarien atxikipenak, 7. artikuluko Bi apartatuko bigarren paragrafoan berariaz jasotzen diren salbuespenekin.

Eta gatazka honetako entitateak ez direnez ez organismo autonomo ez enpresa-entitate publiko, ZAEAREN iritzian, 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoan ezarritako salbuespenetik kanpo leudeke, baina Itunaren 7.Bi artikuluaaren lehen paragrafoko salbuespenaren babesean, gatazka honen xede diren aldietan indarrean zegoen idazkeraz.

Horrela, bada, ZAEAK uste du berari dagokiola AFAk erreklamaturako atxikipenak ordainaraztea; izan ere, DGOSSk atxikipenak egin zizkien jasotzaileei, eta horiek zerbitzua eman zuten Estatuko Administrazio Orokorraren edo Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitateetan, eta entitate horiek ez ziren ez organismo autonomo ez enpresa-entitate publiko.

5.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

5.1.- Administrazioarteko zuzenbide publikoko kredituen preskripzioa.

Arbitraje Batzorde honek behin baino gehiagotan eman du bere iritzia, besteak beste, Arbitraje Batzordearen 2014ko abenduaren 19ko 11/2014 Ebazpenean, baina baita honako hauek ere: 2022ko uztailaren 28ko 39/2022, 40/2022, 41/2022, 42/2022 eta 43/2022 ebazpenetan; 2022ko urriaren 6ko 76/2022 ebazpenean; 2022ko abenduaren 15eko 174/2022 eta 176/2022 ebazpenetan; eta 2023ko ekainaren 23ko 68/2023, 70/2023, 72/2023, 73/2023, 74/2023 eta 75/2023 ebazpenetan. Irizpide bat ezarri du horietan guztietan, eta, irizpide horren arabera, administrazioarteko kreditu publikoaren eskubideak aurrekontu izaera publikoa du, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioarteko kreditu publikoaren

eskubidearen preskripzio-epea okerreko diru-sarrera egitean hasten da. Epe hori ez da eteten obligazioa duen pertsonaren gaineko eskumena duela uste duen administrazioak izapidetzen duen zerga-prozeduran zehar gertatzen diren egitateen ondorioz.

Auzitegi Gorenak abala eman dio irizpide horri, eta berretsi egin du honako epai hauetan: 2015eko abenduaren 15ekoan (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2020ko maiatzaren 18koan (ECLI:ES:TS:2020:1010), 2020ko abenduaren 3koan (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28koan (ECLI:ES:TS:2021:372) eta 2022ko otsailaren 10ekoan (ECLI:ES:TS:2022:596).

Auzitegi Gorenak irizpide berbera berretsi zuen azken epai hauetan: 2023ko urriaren 11koan (ECLI:ES:TS:2023:4217), 2023ko urriaren 23koan (ECLI:ES:TS:2023:4427), 2023ko urriaren 27koan (ECLI:ES:TS:2023:4430), 2024ko otsailaren 12koan (ECLI:ES:TS:2024:734) eta 2024ko ekainaren 21ekoan (ECLI:ES:TS:2024:3329). Epai horietan, Arbitraje Batzordearen hainbat ebazpen aurkaratu ziren; batetik, atxikipenak okerreko administrazioan sartzearen ondoriozko zerga-administrazioen arteko kredituak preskribatutzat jo ziren, eta, bestetik, preskripzio-epearen zenbaketaren hasiera eta hura eteteko kausak aztertu ziren, bereziki zergapekoen aurreko administrazio-jarduketan etengarritasuna.

Gatazka honetan, erreklamatutako atxikipenak Espainiaren eskumenekoak dira ZAEAREN ustez, eta Arabaren eskumenekoak AFAREN ustez; beraz, eskumena AFARI balegokio, AFak leukake eskubidea, eta ZAEAK, berriz, betebeharra.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 21. artikulua aplikatu behar dela, eta hark xedatzen du AFaren eskubideak bost urtera preskribatuko direla. Hala ere, administrazioarteko eskubide batek administrazioarteko betebeharrak bat sortzen duenez, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren 25. artikulua ere aplikatu beharko litzateke, eta hark xedatzen du betebeharrak lau urtera preskribatuko direla.

Desadostasuna, beraz, preskripzio-epetegi buruzkoa da; izan ere, Aurrekontuei buruzko Foru Arauak bost urteko epea ezartzen du 21. artikuluan, eta Aurrekontuei buruzko Lege Orokorak, berriz, lau urtekoa.

Horrenbestez, bost urtez exijitu daitekeen eskubideari lau urtez aitortu beharreko betebeharrak gailentzen zaio, eta, beraz, Arbitraje Batzorde honek uste du AFaren eskubideak talka egiten duela ZAEaren obligazioaren mugarekin. Ondorioz, eskubidea bost urteren buruan preskribatzeari Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren 25. artikuluan ezarritakoa gailentzen zaio; alegia, obligazioa lau urteren buruan preskribatzea.

Kontuan hartuta AFAk 2018ko maiatzaren 25ean aurkeztu zituela ZAEAn itzulketa eskatzeko lau idazkiak, data horretarako lau urte baino gehiago igarota zeuden 2014ko urtariletik apirilera bitarteko epeetegi zegozkien atxikipenak sartu zirenetik. Horrenbestez, ondoriozta daiteke dagoeneko preskribatuta legokeela AFaren eskubidea, alegia, ZAEAk aitortzea aldi horietan dagokien ordainketa egiteko obligazioa duela.

Aurrekoa bat dator Arbitraje Batzordearen aurreko ebazpen hauekin, besteak beste: 2023ko apirilaren 20ko 45/2023 (11/2017 espediente), 46/2023 (10/2017 espediente) eta 47/2023 (12/2017 espediente) ebazpenekin; 2023ko maiatzaren 8ko 50/2023 (17/2017 espediente) eta 51/2023 (23/2017 espediente) ebazpenekin; edo 2022ko abenduaren 15eko 171/2022 (36/2015 espediente) ebazpenarekin. Horietan atxikipenak AFAn sartuta zeudela ikusita, ZAEAk diru-itzulketa eskatu zuen. Arbitraje Batzordeak lau urteko preskripzio-epea aplikatzea ebatzi zuen (atxikipenak sartu zirenetik), hau da, ZAEAREN eskubideen preskripzio-epea. Ulertu zen ezarritako eperik laburrena nagusitzen zela —lege orokorrekoa—, eta bost urteko epea ez zela kontuan hartzekoa —foru-araukoa—, AFAREN obligazioen preskripzioari zegokionez. Edo, beste modu batera esanda, lau urteko eskubidearen eta bost urteko obligazioaren artean, laburrena nagusitu zen, hau da, lau urtekoa.

5.2.- Atxikipenak ordainaraztea.

Arbitraje Batzordearen 15/2016 (24/2014 gatazka), 4/2017 (10/2015 gatazka), 76/2022 (38/2020 gatazka) eta 137/2022 (36/2018 gatazka) ebazpenen bidez ebatzi da zeinena den ordainarazteko eskumena funtzionarioei eta langile lan-kontratudunei edo administrazio-kontratudun langileei ordaindutako hartzeko aktibo zein pasiboengatik (alarguntzakoak eta zurztasunekoak barne) Estatuko Administrazioak (lurraldekoak) eta Estatuko Administrazio Instituzionalak egindako atxikipenen gainean. Ebazpenak erreproduzitzat ematen ditugu oso-osorik.

Hala, Arbitraje Batzordearen ustez, funtzionarioen eta enplegatu publikoen atxikipenak ordainarazteko eskumena honako eskema honen arabera egituratzen da:

a) Arau orokorraren bidez, ondoriozta daiteke jasotzailearen bizilekua dela prestazio pasiboari dagozkien atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko lotunea; aitzitik, prestazio aktiboari dagozkien atxikipenen kasuan, lotunea lantokia da.

b) Arau orokorrari salbuespen bakarra egin zaio (zehatz edo zorrotz interpretatu beharrekoa) Estatuko Administrazioak Estatuko funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei ordaindutako lansari aktibo zein pasiboetan egindako atxikipenetarako, eta horiek Estatuko Administrazioari (lurraldekoari) esleitzen zaizkio.

Azkenik, salbuespenaren salbuespen bat dago, eta, horren arabera, ez zaie aurreko araua (salbuespena) aplikatuko, eta, beraz, arau orokorra aplikatuko zaie Estatuko funtzionario eta lan-kontratupeko edo administrazio-kontratudun langile izan diren jasotzaileei, baldin eta Estatuko organismo publiko jakin batzuetan jardun badute: organismo autonomoetan eta enpresa-entitate publikoetan. Ekonomia Itunaren 7.2 artikulua organismo autonomoak eta enpresa-entitate publikoak aipatzen dituenean, Estatuko Administrazio Institutuzionala osatzen duten ente guztiak barne hartzen ditu.

c) Ekonomia Itunak ez dauka aurreikusita EAERI esleitzea bertako administrazioak berak bere funtzionario eta enplegatu publikoei ordaindutako ordainsarien atxikipenak eta konturako diru-sarrerak.

Auzitegi Gorenaren epai batzuek (2018ko apirilaren 17ko (ECLI:ES:TS:2018:1398), 2023ko urriaren 16ko (ECLI:ES:TS:2023:4215) eta 2023ko urriaren 24ko (ECLI:ES:TS:2023:4304) epaiek), halaber, jurisprudentzia irmoa eta baketsua sortu dute, eta 4/2017, 76/2022 eta 137/2022 ebazpenak berretsi dituzte, hurrenez hurren.

Beraz, Arbitraje Batzorde honek uste du gatazka honi *mutatis mutandis* aplikatu dakiokeen doktrina irmo eta errepikatua badagoela, Auzitegi Gorenak berretsia 2018ko apirilaren 17ko epaian. Doktrina horrekin lotuta, Auzitegi Gorenak 2023ko urriaren 16an eta 2023ko urriaren 24an emandako epaiek berretsi zuten 2018ko apirilaren 17ko epaian jasotako ondorioak aplikatuko zaizkiola, halaber, Estatuko Administrazio Institutuzionala osatzen duen beste edozein entitateri, gatazka honetan gertatzen den bezala, eta ezartzen da organismo autonomo edo enpresa-entitate publiko gisa katalogatu ez izanak ez gintuzkeela Ekonomia Itunaren 7.2 artikuluko araura igorriko, baizik eta tokiko arau orokorrera edo 7.1 artikuluko *lex loci*-ra.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea preskribatuta dagoela AFAk ZAEAREN aurrean duen administrazioarteko kreditu publikoaren eskubidea, DGOSSk 2014ko ekitaldiko urtariletik apirilera bitartean egindako atxikipenei dagokienez.

2.- Deklaratzea Arabako Foru Aldundiari dagokiola DGOSSk 2014ko maiatzetik abendura bitartean eta 2015etik 2017ra bitarteko ekitaldietan egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena, hau da, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren funtzionarioen edo langileen pentsioei eta hartzeko pasiboei dagozkien errentengatik ordaindutako zenbatekoen gainekoa, funtzionario edo langile horiek entitate hauetan zerbitzua eman zuten eta: SECTSA SME eta Correoseko Langileen eta Telegrafoen Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Arabako Probintzia Zuzendaritza; MEA; ZAEA; eta IAGI.

3.- Hitzarmen hau Arabako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eta DGOSSri jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.